



Euskaraz bizi nahi dugu!

Eskola: Gurasoak eta beren lanbideak
Elkarrizketa: Markos Zabalua, herriko motorzalea
Ibilbidea: Lazkao - Ataun (San Martin)



Itsasondo 2.0. aldizkariaren 31. ale honekin 2015. urtea agurtu eta 2016. urteari ongietorria ematen diogu. Ez dut uste aurten 2015eko gertakarien erreparosoa egin eta 2016ko asmo onen zerranda egiteko indarrak geratzen zaidanik; ondorioz, norberak berea egitera gonbidatzen zaituztet. Gomendio bat ematen uzten badidazue, onak kontuan hartu eta txarrak ahazten saiatu; hori bai, ikasgairen bat utzi badute, kontuan izan berriz ere gerta ez daitezten.

Eta urte berriari ilusioz eta gogoz ekitea tokatzen zaigu berrir. Beti bezala, asmo onez beteta dator urtea, bai maila pertsonalean (osasuna zaindu, kirola egin, ondo jan, familia eta lagunekin denbora gehiago igaro, libururen bat irakurri, zertxobait ikasi) eta baita gizarte eta herri mailan ere (eskubide sozialen defentsa, ingurugiroa zaindu, herri bizitza sustatu, euskaraz bizi...). Gainera, herri mailan, Goierriko jadanik agendan gorritz margoturiko hitzordu garrantzitsua du: herri galdeketa; euskal herri-tarrok zer izan nahi dugun erabakitzeke bidean lehen urratsa. Ikusten duzuen bezala, aurten ere erronkak ez zaizkigu falta; batzuk, gainera, ez dira nolana hikoak. Baina, goazen pixkanaka, eta ez gaitezen estresatu, bidea luzea baita, eta ez da komeni azkarregi hustutzea. Gure esku dago pausuz pausu horiek lortzen joatea.

Hori guztia esanik, goazen Itsasondo 2.0. aldizkariaren 31. alea aurkeztera. Oraingo honetan, tarte nagusia Markos Zabaluak eta motokros munduan bizitako ibilerek eramango dute. Hip hip urri ekimena familian egiteko ekintzen 3. ekitaldiari buruzko kronika izango dugu. Urte amaiera izanik, jubilatuek urteko ekintzen erreparosoa egiten dute. Udaleko batzordeek ere beraien jardueren laburpena egiten dute. Guraso elkarteak, aldiz, gaztaina janaren kronika egin digu. Betiko atalak ere fin-fin etorri dira: udaleko berriak, informatika, ibilaldia, errezeta... Eta, nobedade moduan, sendabelarrei buruzko atal bat jarri dugu abian; ea gustuko duzuen.

Gainerakoan, beti esan ohi dugun legez, esku artean duzun ale hau hartu eta bertan murgiltzera gonbidatzen zaitugu. Badakigu atal batzuk beste batzuk baino gustukoago dituzuna. Hori bai, Itsasondo 2.0 aldizkaria osatzen dugun lan taldetik zera agintzen dizugu: saiatzen ari garela aldizkarian zuentzat hurbileko gaiak lantzen eta ahalik eta modurik argi eta erakargarrienean zuei aurkezten. Horixe izango da Itsasondo 2.0. aldizkariaren aurtengo erronka; ea lortzen dugun! ■



- 03-04. **Udaleko berriak**
- 05. **Hip hip Urri!**
- 06-07. **Eskola**
- 08. **Gazteria**
- 09. **Gazteak**
- 10. **Euskara taldea**
- 11. **Gure esku dago**
- 12-16. **Elkarrizketa:** Markos Zabalu
- 17. **Jubilatuak**
- 18-19. **Agenda 21**
- 20-21. **Ibilbidea:** Lazkao - Ataun (San Martin)
- 22-23. **Aranzadi**
- 24. **Guraso elkarte**
- 25. **Informatika**
- 26. **Ongizatea**
- 27-29. **Hemeroteka**
- 30. **Natura eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa / Euskararen atala**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Doinua: *Esmesaltzailearena*

Urte berriarekin
mezuen altaboz
zaratak badatoz
zirrargarrienak
eginak apropos,
motoaren gainean
bota eta kaskoz
gurdibideetan zehar
jauzi eta saltzoz
lokatz trajearekin
heldu zaigu Markos (bis)

Jubilatuak berriz
lanpeturik oso
gerri eta beso
urte guztiko karga
eta erreparos;
guraso elkarteak
mendi eta baso
gaztainak bildu eta
janez gozo-gozo
eskuak bero eta
tripa animoso (bis)

Udaletxean, noski
jarduera frango
hemengo ta hango,
Hip hip ekimenean
famiak sendo,
ibilaldiak eta
errezetak ondo
sendabelarrak modan
dabilta egundo
belar txarra galtzea
ez da erraza izango (bis)

Udal erabakiak

2015. urteko azken hiruhilabeteko berriak ematearekin batera, 2015eko zenbait datu emango dizkizuegu jarraian.



Eskatutakoak:

- Ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbaziorako ekimenak finantzatzeko 2016-2017.
- Herri Eskolan zenbait obra txiki egiteko laguntza eskatu da.
- Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako zuzendaritzak 2015eko irailaren 16an egindako deialdia aprobetxatuz, argiteri publiko sistema eraberritzeko lanak finantzatzeko laguntza eskatu da.
- Goimen elkarteari herri bideetan konponketa lanak egiteko.

Jasotakoak:

- Foru Aldundiak, Agenda 21eko deialdian 9.161,53 €, 2015-2016 urteetako ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbazio ekimenak gauzatzeko.
- Itsasondoko osasun anbulategiko mantentze gastuetarako 6.711 €.
- Liburutegian irakurzaletasuna sustatzeko 722 €.
- Tipi Tapa programa gauzatzeko 1.307 €.

Egindako obra-instalazio garrantzitsuak

- Argiteri publikoko sistemaren eraberritze lanak amaitu dira. Guztira 152.259,78 €ko kostua izan du, eta honela finantziatu da:
 - Foru Aldunditik jasotako laguntza 40.248 €
 - Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza EVE 30.750 €
 - Foru Aldundiko lurralde orekaren programatik 17.794 €
 - Udalak jarritakoa 63.467,78 €

Mozioak

Pah kaleratzeak Stop Desahucios-ek proposatutako mozioa onartu zen irailaren 28an egindako udal batzarrean.



Beste zenbait erabaki

- Onartu diren obra baimen espedienteak lau izan dira.
- Jaietan bi txozna jartzeko baimena eman zen.
- Arbelaitz elkarteari iraileko eta urriko zenbait ostiraletan pintxo poteoa egiteko baimena eman zitzaion.
- Herri bideetatik zehar garraio bereziak, pinu egurra ateratzeko hiru baimen eman dira.
- Herriko jaietako postuak jartzeko baimenak eman ziren.
- Talde bati udaletxean Pilates ikastaroa emateko baimena eman zaio.
- Langileen lan kudeaketarako web aplikazioa garatzeko lana Ikernet Informatika zerbitzuari eman zaio.
- Ermintza elkarteari ehiza postuen zozketak udaletxeko pabeloian egiteko baimena eman zitzaion.
- Udal sailtako egur ustiaketa enkante bidez emateko deialdia egin da.
- Hilerriko lurperatze lanen bi likidazio onartu dira.
- Udal tasen ordainketarako laguntza bat eman da.
- Bizi nai elkartean makrobiotika ikastaroa emateko baimena eman da.
- Murumendi inguruan bi lur sail erosi dira.
- Udal tasen erroldak (ura, zaborra, estolderia) onartu eta kobrantzan jarri dira.
- Fakturen zerrendak onartu dira. Laugarren hiruhilabetean onartutako fakturak 59.413,51 €ko inportea izan du.

Diru-laguntza hauek eman dira:

- Bizi Nai jubilatuta elkarteari 2.100 €ko laguntza, 2015eko ekintzak finantzatzeko.
- Bizi Nai Jubilatuta elkarteari 1.100 €ko laguntza, Jubilatuta eta pentsionisten eguna antolatzeko.
- Arbel aitz elkarteari 1.000 €ko laguntza.
- Odol emaile elkarteari 250 €.
- Nafarroa Oinez eta Herri Urrats: 250 €ko laguntza bakoitzari.
- Urkiako jaietarako 1.025 €.
- Itsasondoko Herri Eskolari 1.550 €.
- Euskal Fondoari, herrialde pobreetan programak gauzatzeko, 1.500 €.
- Udal tasak ordaintzeko 98 euroko laguntza eman da.



2015eko aurrekontua

Itsasondoko Udalak 2015. urterako onartutako udal aurrekontua 810.400 €koa zen. Urtean zehar onartu diren kreditu aldaketa espedienteen ondorioz, behin betiko aurrekontua 948.600 €koa izan da. Kreditu aldaketa espediente hauek 2014ko kreditu gerakinarekin finantziatu dira.

Arkitektuaren plaza

Orain arte arkitektu zerbitzua kontratatutako pertsonal bidez kubritu bada ere, abenduaren 9an egindako batzarrean, arkitektu plaza bat sortzea erabaki da, %20 dedikazioarekin. Deialdia Legorretako Udalarekin batera egingo da, eta kontratatuko den langileak funtzionario izaera izango du.

Etxebizitza errentan

Nagusia 7ko 2. solairuko etxebizitza errentan emateko egindako deialdiaren ondorioz, eskaera bat aurkeztu da, eta esleipenari buruzko erabakia hurrengo udal bilkuran hartuko da.

Ordenantza fiskalen aldaketa 2016. urterako

Azaroaren 9an egindako udal bilkuran, 2016. urterako aldatu beharreko ordenantza fiskalen tarifak aztertu ziren. Udal kontuetan defizita sortzen duten zerbitzuak ura eta zabor bilketa zerbitzuak direnez, horiek bakarrik aldatzea erabaki zen.

Ur tasak %5eko igoera izango du.

Zabor bilketa tasak %15eko igoera izango du.

Biztanleriaren bilakaera 2015. urtean

- Biztanleria 2015.1.1 ean 675
- Jaiotakoak + 2
- Heriotzak - 5
- Inmigrazioa-emigrazioa -4
- Biztanleria 2015.12.31 658 biztanle

Gardentasuna

Gardentasun Legeak 2013ko 19. Legeak erakunde publikoei ezartzen dien betebeharrak kontuan izanda, Udaleko informazioa herritarren esku egotea eskatzen duenez, Itsasondoko Udaleko zenbait datu <http://www.gipuzkoairekia.eus/eu/gardentasuneko-katalogoa> helbidean argitaraturik geratu dira. Geroago datu gehiago emango dira.

Langile berriak

- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua indartu beharra antzemanda, langile berri bat kontratatu da urritik abendura bitarte eta urtarriletik ekaina bitarte %50eko dedikazioarekin. Kontratazioa Udalean osaturik geratu zen lan poltsatik egin da.
- Lanbidek emandako diru-laguntzaz baliaturik, lau hilabetez Udalean lanean izango da informatika ikasketak dituen Jokin Perez de Viñaspre gaztea. Kontratazio hau oso-osorik Lanbidek emandako diru-laguntzarekin finantziatuko da.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak

Indarrean dagoen udal tasak ordaintzeko laguntzak eskatzeko interesaturik daudenei jakin erazten zaie, eskubidea eskubidea aurkezten direnetik aurrera aplikatzen dela.

Beraz eskubidea izan dezaketen guztiei eskubiak ahal den azkarren egiteko eskatzen zaie.

Informazio gehiago udaletxean emango da. ■



Hip Hip Urri!

2013. urtean sortu zen ekimen honen hirugarren ekitaldia izan da aurtengoa. Helburua: familian, guztiok elkarrekin, kulturaz gozatuz ondo pasatu eta ikasteko aukera eskaintzea.



Helburu komun honekin, hainbat erakunde, udalerrri eta kultur gunetaldetara elkartu ginen urriko asteburuetan, kolore oso desberdinak dituzten hamaika ekintza eskaintzeko: antzerkia, dantza, zinema, umorea, ohiturak, natura, elkertasuna... guztion interes eta jakinmina asetzeko asmoz prestatutako jarduerak.

Aurreko urteetan jasotako partaidetza datu positiboek arrakastatsu bilakatu dute ekimena, eta antolatzaileek Donostiako mugak zeharkatu eta Goierriko eskualderaino zabaltzeko dute, eta ekintzok Goierriko hainbat herritan burutu dituzte.

Gure herrian, eta Legorretako bizilagunekin batera, urriaren 10ean mendi buelta antolatu zen. Itsasondon goizean goiz elkartu, tren hartu, eta Legorretakoekin bertako plazan elkartu ginen.

Guztira, 25 heldu eta 32 haur elkartu ginen. Plazatik abiatu eta Urdaneta auzotik gora Altzagarateruntz bideari ekin genion. Nahiz eta aldapa luzea izan txiki batzuentzat eta lainotuta egon, giro paregabea iritsi ginen denok! Batzuk jolasean, besteak kantari, bizilagunak diren Legorretakoekin hartu-emanetan...

Altzagaraten, indarrak hartzeko hamaiketako ederra egin genuen. Gurasoak solasaldian, haur batzuk tokan ere ibili ziren, eta besteak bertako txokoak hausnartzen.

Ondoren, berriro motxilak eta makilak hartuta, bideari ekin genion. Altzagaratetik Abali auzora jaitsi ginen. Ondoren, Aramara iritsi eta bertatik Itsasondora!

Bertako plazan, otartekoa jateko mahai batzuk, musika eta haurrentzat puxika batzuk zeuden prestatuak. Eguraldiak asko lagundu zuen, bai ibilaldia egiteko eta baita herriko plazan mahai inguruan elkartu eta bazkaltzeko ere!

Oso egun polita izan zen, eta gure kasuan ekintzak bere helburua lortu zuen! ■

Gurasoak eta beren lanbideak eskolan

Eskolan, garrantzitsua iruditu zitzaigun eskola oraindik ere irekiagoa azaltzea, sentitzea...

Horretarako, guraso nahiz familia, lagun... gonbidatu zintuztegun eskolara etorri eta zuei buruz, zuen bizitzeko moduari buruz... hitz egitera.

Esan beharra dugu **ZORAGARRIA** izan dela!

Gonbidatuen lanbidea ezagutzeko eta lan hori bizitzeko aukera izan dugu. Parte-hartzaile egin gaituzue, eta beste bat noiz etorriko den itxaroten gaude.

Beraz , **MILA ESKER!**

Maiderri esker zenbat ikasi behar zen ohartu ginen! Ze liburu pila eta ze lodiak! Eta ze garrantzitsuak diren hitzak edozein liskar konpontzeko.

Bere toga eta mailua hartu eta janzteko aukera eman zigun!



Igorrek, berriz, jaio zen etxea erakutsi zigun... Orain **HOTEL DOTORE** bat da. Argazkiak eta gozokiak eman eta bertara joateko gonbidapena egin zigun! Imajina ezazue jaio zaren etxe berberean lan egitea!

Ze polita!

Eta, noski, joan ginen! Bertan, Liharren birramonaren argazkia ikusteko aukera izan genuen, eta bere osabarekin, ogi goxoa egin genuen.

*Gure txikietako baten aitak, Angelek,
berriz, dantzan jarri zuen eskola!
Nahi izan genuen musika jarri zigun!
Kea, karaokea...
Kostako zaigu ahaztea!*



*Adeirekin, berriz, SORMENA landu genuen!
Liluratuta gelditu ginen gure eskuekin
eta buru txoroekin egin dezakegunaz...*

*Leireri esker, gure gorputza zaintzen eta
aldi berean antzerkia egiten ikasi genuen!
Mozorrotzeko aukera izan genuen guztiok!*



*Gaixoen eta zaurituen gela.
Azkena, KIROL munduan barneratzea
izan zen. Horretarako, Iñakik txirindulari
arropa ekarri zuen eta elkarrizketa polita
bideratu zen.■*





Gazteria

Gazteria

Itsasondoko haur eta nerabeek hainbat ekintza egiteko aukera izan dute. Gazteria zerbitzuak honako egitaraua prestatu du:

ABENDUAK 28 ETA 29: ROBOTIKA IKASTAROA

ABENDUAK 29: IPUIN KONTALARIA

Karreape gaztelekua

Sormen gela dugunez, aurtien material birziklatuekin gauzak sortzen gabiltza. Horrez gain, sukalde tailerrak eta mahai jolasak egiten jarraitzen dugu gaztelekuan.

Jolas txokoa

Jolas txokoak aurrerantzean itxura berria izango du. Hainbat guraso eta haurrek parte hartutako saioen bidez, hobetzeko proposamenak jaso ditugu eta lanean jarri gara.

Jolas txokoan, 0-2 urteko haurrek babesean eta eroso egoteko aukera izango dute. Haurrek, berriz, lagunartean eta gurasoekin jolasteko aukera izango dute.

Jolas txokoa 0-10 urte bitarteko familientzat da. Oraindik txartelik ez baduzu, udaletxean eskatu besterik ez duzu. ■

A-25: Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

1999. urtean Nazio Batuen Batzar Orokorrak azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna izatea erabaki zuen. Urteak pasa dira egun hartatik, eta aurten, 2015ean, ikuskizun desatsegin bat ikusten dugu. Ez ditugu datuak aipatu nahi, emakume bakar baten kontrako bortizkeria nahikoa delako errealitate desegoki hau salatzeko.



Egunetik egunera haziz doaz tratu txarrak, ez bakarrik fisikoak, hitzezkoak, sexualak, psikologikoak eta lanekoak ere pairatzen dituztenen kopurua. Tratu txar hauek, noski, ez dira emakume helduetan bakarrik gertatzen, bizitzaren edozein momentutan jasan daitezke. Eta isiltasunak ez du, inola ere, laguntzen.

Erakundeek egoera hau konpontzeko erabaki eraginkorragoak hartu beharko lituzkete. Halere, azpimarratu behar da, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako neurriak ez dituela bakarrik Estatuak ezarri behar. Guztion betebeharra da besteen osotasun fisiko eta mentala bermatzea. Beraz, Estatua osatzen duten maila ezberdinetan neurriak hartu behar dira, hala nola, erakunde, gizarte, ONG, e.a.

Gizaki guztien ezinbesteko eskubideari buruz jardun dugu, bakean bizitzeko eskubideaz, hain zuzen ere. Horregatik, emakumeen aurkako erasoak gogor zigortu behar dira, aurretik aipaturiko eskubidea zuzenki urratuko litzatekeelako. Are gehiago, hezkuntza arazoaren konponbidearen zati izan behar da. Hezkuntza egokia, baloreei buruzko hezkuntza egokia, arazo larri hau konpontzeko giltzarria da.

Gizartea, hezkuntza bezala, ezin liteke arazoaren aurrean elementu pasibo bat izan. Alderantziz, konponbide izan behar du; gizarte-isiltasun hori delako, hain zuzen, arazoa areagotzen duena.

Ez gaitezen isildu! Sala dezagun injustizia! ■

Itsasondoko atsotitzak edo esaera zaharrak

Azken urteotan jendearen bizimodua aldatu egin da zentzu guztietan, eta, horrekin batera, ahoz-kotasuna eta ahozko ondarearen berezko transmisioa ere eten egin dira. Urteak joan urteak etorri, kalean gero eta gutxiago entzuten dira euskal atsotitzak edo esaera zaharrak. "Hainbat koplak, esaera zahar edo atsotitz esaten zizkiguten gure aiton-amonek, eta zenbat esaten ditugu guk gaur egun egunerokotasunean?" Arazo honen jabe izanik, Itsasondoko euskara sustatzea helburu duen lan-taldeak egitasmo bat ipini zuen abian azaroan: Itsasondoko esaera-zaharren edo atsotitzen bilduma bat osatzea, guztiona den altxor hau galdu ez dadin. Ez genuen, ordea, horretara soilik mugatu nahi; egitasmo honen lehentasuna Itsasondoko euskaldunen zirikatzaile izatea ere bada, atsotitzok euskara aberas-teko berebiziko erremintak eskaintzen baitizkigute. Aurrekoak izan ziren moduan, gaur egungoak eta ondorengoak ere hizlari bizi-biziak izan gaitzen!

Herri poesia, ahozko literatura, folklorea, kultura ondarea, ondare ukiezina... Deitura desberdinak gauza bera izendatzeko. Azken batean, ukiezina edo ikusezina den ondarea, orain hamarkada batzuk arte belaunaldiz belaunaldi transmititu izan den aberastasuna. Ez genituen, ordea, espainiar atsotitzen itzulpenak jaso nahi izan, Itsasondoko baseritarrek gurasoz guraso jasoak baizik:

- Herriaren antzinatego usteak, jakituria, jokamoldeak eta tradizioak kontatzen dituzten esaera zaharrak.
- Gaitzak sendatzeko otoitzak, sorginkeriak, erlijioari buruzko iritziak, jaiak...
- Mitologiaren aztarnak eta naturari buruzko sinetarak...
- Euskal gizartea: familia, lana, erlijioa...
- Euskal Herriko ohiturak: zeri hiltzea, etxez aldatzea, ezkontzea...
- Animaliei buruzko usteak: zakurrak, ardiak, zerriak, astoak, azeriak...

Norberak zekizkienak, ingurukoei entzundakoak edo beren-beregi proiektu honetarako bildutakoak, guztiek balio zuten. Hona hemen bildutako atsotitzetatik, bitxienetarikoz batzuk:

Guztira 200 bat atsotitz bildu ditugu; bejondeigula! Hori bai, ahalegin hau ez dadila hemen geratu; astindu mihia eta hasi esaera zahar hauek erabiltzen! ■

Eroiz ikasten da oinez

*Zorraz zor,
lepoa lodi*

*Ergeltasuna,
sendatu ezin leiken
gaixotasuna*

*Astoak mandoari,
belarri luze!*

*Bost xentimoko
pupua, hamar
xentimoko trapua*

*Ustez ezina,
saiatuz egina*

*Lan lasterra,
lan alperra!*

*Txerri goseak,
ezkurra amets*

*Abenduko egune,
argitu orduko ilune*

*Langile alperrak,
erramintak amuts*

*Jai-jai, asteguna ere
hala nahi*

*Jakintsua sarritan ixilik,
ez jakina ixildu ezinik*

*Bide zapaldua,
bide segurua*

*Zai dagoenari,
orduak luze*

*Gezurra esan nun
Getarin ta ni baino
lehen zan atarin*



eskura

Itsasondon ere pausoa ematera goaz. Unea iritsi da!

Goierritarrak, aspaldi abiatu ginen bide honetan... Nazioen Mundua herri ekimena abiapuntu, 2013ko ekainaren 8an Gure Esku Dago dinamika sortu genuen. Dinamika herritarra, erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten duen dinamika anitza eta parte-hartzailea, tokian tokiko ekimenei aterkia eskaintzen diena. 2014ko Giza Katea berriz, jarrera baten adierazpena izan zen, herriz herriko ilusioaren adierazpena alegia. Durango eta Iruñea artean gu guztion eskuak elkar lotuz, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, Giza Katea osatu genuen... Mugarritzat jo genuen ekitaldi hau, baina inondik inora mugimenduaren bukaera, fase berri baten hasiera baizik. Orain ordea, pauso berri bat ematera goaz... Erabakitze eskubidea gauzatzeko jaiotzen, eta hori egi bihurtzeko helburuarekin, 2016ko ekainaren 19an herri galdeketa egingo da Goierriko 22 herrietan. Honen haritik, eta ekainera bitarte eman beharreko pausok azaltzeko asmoz, hitzaldia antolatu genuen urtarilean Itsasondoko Kultur Gunean.

Bertan, herri galdeketa zilegitasuna emateko, Goierri mailan 6.000 sinadura bildu behar zirela azaldu ziguten besteak beste eta Itsasondon 100 sinadura inguru bildu genituen egun gutxiren buran. Ekainera bitarte eman beharreko pausok ordea ugarriak dira...

Etorkizuna demokratikoki erabakitze, herri galdeketa prozesua martxan dago.

Hau guztia kontuan izanik, Itsasondon Gure Esku Dago-ko lantalde bat osatzeak berebiziko garrantzia du... Interesa baduzu, jar zaitez herriko arduradunarekin harremanetan!!!

Herri bat baikara, erabakitze eskubidea dugulako eta gure garaia, herritarron garaia delako! ■





Markos Zabalua urteak daramatza motorraren itzulian eta harretzek egiten du ezagun itsasondoarra bere herrikideen artean. Berarekin izaniko solasaldian kontu ugari kontatu dizkigu, lehengo eta oraingo garaietako pasadizoak gogora ekarriz, baina beti ere keinu eta leku berezi bat eginez bere zaletasunari.

Hasteko aurkeztu hire burue...

Ni Markos Zabalua naiz, Itsasondon jaiotakoa 60. urteko maiatzaren 1en. Oseake ia urte batzuk pasaittuk! Eskolan, hemen Itsasondon eskola txikitan hasi, hemen zeon, Elizbiden ondoren, etzekiat ezautuko huan, Itturri-txikin paren zeon edizio txiki hortan, han hasi giñuztean ta gero zarrakiñ gora, eskola zarreta, guaiñ gaztelekue dan horta; ta handik toka huan gu hemen genbintzeala eskola berrik in xixkien, trasladoa guk in gen-

duan, izango huan setentan, inguru hortan, etzekiat... setenta y unon ia Beasaiña institutoa jun giñuztean, 11 urtekiñ 14 urte arte. Ta handik ia gure buruk etzian gehioako ematen, capacidad craneal da... lanea. Aittek tailler bat bazian hor Itsasondoren ta gero Legorretan, eta han, guaiñ arte.

Umetako garaiek nola goatzen diituzu? Garai hartan ume de-xente izango ziñeten?

Asko. Gure kuadrillan danea us-teiat geala 20 ta piko bakarrik.

Ordun telebixioiek etzeoan ta guaiñ bezela ta... Ibiltze giñuztean beti, akordatzeko, Goiko-kale kontra Beko-kale burrukan. Hor, gue etxe atzen bazeoan arboleda haundi bat, pantanadi haundi bat, ta han itte giñuztean zulok bitxurretan, tranpak. Jartze genduguan adarra-kiñ periodikoe ta lurre botatze genioan gaiñea ta bizikletakiñ gu aurretik ta atzetio zetozenak... Aldamenetik pasatzen genduan ta hola ibiltze giñuztean... Goiko kalekok ordun e, karo, zerean Joxetxo, Mimi,...ta hok, ordun... beran Lakuntzatic hasi ta berañio, Tomaxenekok, zea,... Peli, Ramon Elustondore bai ta Juan Iñaki, ta gue etxeaiñio ba... kixton afizioa zeon, joe! A ze putadak! Zeiñek zeñ izurrauko! Eta gero, ba, hoi, fubolen ta ibiltze giñuztean kanpofubolen jaietan; ordun besteik etzeoan ta jaiero hautza, baiñio de suplentes. Ordun ekipo ona bazuan hemen; zea Azubiko Joxe Mari ta Joxe Ja-

Markos Zabalua

Motorra afizioa



Santander 2015.

bier ta... hoik jo itte ziean; ta gu de-
seatzen zein lesionatzen zan barrua
sartzeko! Ta gero ia ba, behiñ 16
urtekiñ o hola, hasi giñuztean
moton hotsakiñ.

Aurretik betik kalen, ez gaur eunen bezela, telebixo au- rren,...

Gu beti kalen. Han txabola bat ba-
zeoan ta egonlekua in genduan, ta
beti zeoze itten ai giñuztean.

Hoi zeñek in zian?

Hoi guk, kuadrillan tetxue ta dana
eroita, arreglau genuan da... geo
etzekiat ze pasa huan, etzekiat Sa-
rasolak o ez ote zon jarri ta gu de
okupas! Hoi alpèrrik zeok ta zeoze
itteko aprobetsau behar diau ta,...
kristalak jarri ta,...

Ordun aurreneko gaztetea hue izango zan?

Bai, klube. Ta gero, bueno, he-
mengo kotxezar guztik geatzen zie-
nak aberiata, haik arreglatze
giñuztean da... Guardia zibillekiñ ta
hor ibiltze giñuztean... Behiñ akor-
datze neok, Diputazioko zilindro bat
zeoan hor, geauta, Nautiko aurren
bakik nola zeoan len biden ta, jode,
jai atsalden arranka diau ta ostia,
geo ez diaula geauko! Mendin kon-
tra jartze genduan da, ta-ta-ta-ta!
Guardia zibillek motokiñ! Geau hit-
ttuan,... Gu harri-pillatik gora ko-
rrika ta haik zilindroa geau eziniñ
ta... aizkenen gasoillipe geau huan
arten hor ibilli huan; haik e aspertu
zienen alde in zien ta... Holako
trastekerik itte giñuztean! Ordun,
Ibarreko Jexux Mari gendukean
ordun de kabezilla, Jexux Mari ta
bere txakur txikie.

Ordun, hemen ikasketak bu- katu eta 11 urtekin institutua jun da, han zeoze ikasi ta,...

Hautza jute giñuztean eune pasa-
tzea... Ordun etzeoan guain bezela,
etxeko lanak ta etxeko lanak, ta
etxekolanak. Ordun e itte giñuztean
da etxea etortze hitzean da guain
baiño denbora gehio genukean be-
hinzat. Guaiñ ikusteiat gure seme-

**Markosen beste afizio bat
kotxe klasikoak konpontzea
da. Bederatzi kotxe
desberdin dauzke: Mercedes,
Jaguar, Simca Rally, Simca
Barreiros, Renault 5...**

**Tartean ETAk Eugenio Beihl,
Kanziller alemana, hiru
egunetan zehar baituta
eduki zuen Mercedes.**



alabakin da, etortzeittuk eskolatio
ta orduk pasatxeixkie... Ordun den-
bora gehio zuan daneako. Itten
genduan esamiñe o baldinbazioan
eun batzuk leno... baiño bestela,...
bai, ordun denbora gehio zuan, da-
neako. O itte giñuztean elurre ba-
linbazeoan Altzagaratetik bera
hemen zuzenen jeiste giñuztean
plastiko zarren batekiñ o, con lo
que sea, egur puska batekiñ o,...
Baiño beti kanpon. Trastekerik
itten.

Eta ordun, ia instituto bukauta o utzita o, lanen haste haiz ai- ttekin, ez?

Bai, hasi nitxoan lanen 14 urtekiñ,
eta ni ordun moton gusanilloa ia
sartuta neukoan da Joxe Mari
Letek lana itte zian Donostin moton
denda baten da harek esate zitean,
hi halako motoa zeukeau ta aittei
esan da, motoa etzian iñola ikusi
nahi eta,... Jun nitxoan lanea Ordi-
zia, hor itte xixkien erramienta
kajak, zeau, guaiñ zer zeok hor,...Hor
itte xixkien erramientak "Margal-
bil", huan Mariano Galarza Villa-
franca, ta eoten nitxoan pintatzen.

Ordun ia aitten tailerra utzita,...

Bai, utzi nian zeatik motoa etzitean
eosten da,... ja,ja,ja,... Han pau zai-
kean aurreneko taloia,... ba 30.000
pezta o,...

Ze urtetaz hitz eitten ai gea?

Ba,... setenta y seis izangoa. Ta ta-
loiakin korrika Donostia. Hure utzi
han da motokin Zurriolako plaian
hola, zea, zan aldapea ta, hura
arrankaube eziñ etxea etorri. Zu-
rriolako alpandan bera bota nian,
arrankau nian da, han buelta bat
eman da, nere anai Joxe Luisek ba-
zian R4 bat, da han sartu motoa ta
han hasi ittuan nere abenturak.
Ordun, ibiltze giñuztean Joxe Mari
eta ni, biok, hasi giñuztean gure
edadekok... Gero, hoik hartu ziean
afizioa kamiño motona ta ibiltze
hittuan,...

Letea bea?

Bai, ibiltze hittuan hemen, gure
etxeko kurban jartze giñuztean
danak ta, etxe ingurun hola ta, aber
zeiñek baiño zeñek belaunekin go-
rago joko. Asintxo eta Joxe Mari,
suizidas. Nik beti esan diat, guk
suerteia izan deula, zeatik in diz-
kiau... bueno! Astakerik! Estellan
karrera baten ta hausu nixkian bi
maliolok, bazo ta bi bertebra us-
teiat... Eta kotxeik ibiltzeik eneu-
kean ta esan zitean enbragatzeko
ta, ne laun Leandrok esan zitean,
hi hor bazekeat motoa ta utzikoiat
nik lanea ta juteko ta utzi zitean Ya-
maha Larongo bat. Eta etxetik ata
nitxoan Ordizi alde ta hoik eama-
teie hankea bakik hola, ibiltzeko, ta
altxa nunen hankea beran geau
huan da garo, gue etxeko kurbea
aurrena eskubia ta, hau eskubia, ta
hurrungoa eskubia, lbasea sartu
nitxoan... enula kurbaik hartzen da
joe, ta... petrille ta esan non, ostia
bera nijok. Tira nitxoan mototik zea,
kamiñoa, ta motok jo zian petrille,
beste aldeko petrillere joa zian ta
kamiño erdi-erdin han geau huan
ta aurreneko kotxea pasau zana zu-
marrako bi enfermera. Ta ni ata ni-
txoan handio eta enfermerak

kaskoa kendu nunen, tu otra vez!, ja,ja,a,ja kotxen sartu ta Manolon etxea, zea, Milianen semea, hauntza allau ta hi, eamaiak hik Mujika-etxeaiño ta harekin berrize arriba, Zumarra. Bildurre hartu nioan, eske ia ikuste nitxoan han beran, errekan, ta esan nian,...

Hemen ibiltze giñenen e kanpofubolen, bakik nola pelukera zeoan hemen, Mari Karmen, ta ama ta juteittuan pelukeria ta emakume guztik zea esate omen zien... ume zikiñoik babizte hor hotsa ta moto zikiñ hoikiñ da... ne amak esate zian ni hotsa aitzen deten bitarten gustoa nau, hotsa aitze ez detenen preokupatze naiz ni. Guaiñ nik hotsa aitzen deten bitarten ni gustoa.

Aurreneko izan nian hemen, itten genian karrera Ormaiztein, guk antolatzen genduan dirueta atatzeko. Ormaizteñ geneukan hor Tejerin frontenzirkuitoa Ta aurreneko akzidentea han izan nian ta han puska nizkian hanka ta sorbaldea ta han eon nitxoan beste urtebete...

Hoi aurreneko karreran?

Bai, Arrondan. Kontu hoikin aurrenekoa, ta gero hor zuan zirkuito bat, Aginagan, kixton politte huan, kanpeonato de España itte huan Aginagan da han hasi nitxoan, 18 urtekiñ. Peli, Joxe Mari ta biok. Ta kamionen aittek eamate ziguan, aittere orduako engaiñata pixkat ta, kamioia bat bagenian da, atzen jartze genizkian motok ta gu etzanda eta Itsasondoko ekipo guztie, ba Asintxo tare bai ta Txixi ta atzen kamiona betetze huan jendez ta benga, hautza ta honea. Hola ibiltze giñuztean, ta hola hasi nitxoan ni 18 urtekiñ.

Ordun hor etenaldi bat euki huan ez?

Bai, urtebete. Eska nian permisoa zeati ordun Kontxan itte huan karrera bat da etorri nahi nian korritzea ta eskusa horrekiñ ba,... ukau, ni pa dios da urtebete geau nitxoan

o gehixeo, honea etorri ta beize,... Beize hasi beharra dakek. Motok ordun, ordun e zerean Montesa, Bítako, baiño Frantzín, ta guk hemen Frantzi bertan eukita hautza jute giñuztean da han hasi ia hittuan Yamaha, Honda, Suzuki... Hor zeoan tipo bat, Hendaian bertan, ta harekin tratun da hasi ta gero hasi ginuztean ia moto japonesakín ta bua,... ze ikusik ez! Huan beste mundu bat. Ia hittuan, frenos de disco, con amortiguador ta ia... Ta gero ia hasi giñuztean ekartzen Andorratio, altzanbezela. Jun, motoa erosi eta desmontau puskaka ta potrok estu geñuzteala hasi giñuztean hola ta heak pasatzen zittuan hasta Ponds uste det zala.

Moton kontrabandoa in zenuen ordun?

Bai, itte genduan ordun,... eske, igual ekartze giñuztean hamar moto Andorratio ta hango dendakokiñ oso harreman ona gendukean ta gero heak emate ziguean Frantzín zuan moto bat ekartzeatik kajoi bat rekanbioa Adorran emate ziguean kit osoa eta harriesgau in behar. Arriesgau. Akordatze nitxok jun nintzela Ibarreko Jexus Mari, gauen, hemendik ata atsaldeko zazpitan da Joxetxo Kaxkardiri Ford Fiestea kendu ta esanez pau in behar genduala zeoze ta bitarten Andorra alde in. Ta handik bultan, ba hurrongo goizeko zortziek o etzekiat ze etorriko giñuztean, zea Ford fiestan motoa desmontauta a piezas, eta gasolinera baten sartu giñuztean da, zea gasolina betetzea eta aurreko kotxek atzeaka eman zian ta jata paratxokea, dumba, ta guardia zibillek han geo. Tipoa tranquilo que hacemos los papeles, ta nik tranquilo no pasa nada, no es nada, no es nada,... no es nada... Guardia zibillek etortzea ta arrankau, ez gasolinaiak, ta ospa! Ta handik lau kilometroa paratxokesa lurrea. Ordun moteill holako gauzak itte hittuan. Aurrena ekartzen giñuztean hola ta gero ia heak.

Andorran eosí o hemen eosí zeoan aldeá!. Manolon R5kon jun da, aten panelak soltau ta paneletan radiokasetak eta sartu ta han akononauta, soltau o ez soltau,... Soltatzen genduan, han esplanada batea jute giñuztean Andorra ta sartze giñuztean leku guztitatio,... Radiokaseta Pioneerria ordun koxtetako bu, minikadenak eta telebixoare han eosí genian guk aurrenekoa, kotxentzako, hola txikie. Ta jun giñuztean Turre ikustea Andorratio ta, ba, telebixoa eosí behar diau. Joxetxok eaman zian bere arreba Anan C15a ta entxufea eziñ sartu ta kauen dio, telebixio earra zekeau baiño indarrík iñun ez ta,... Hasi gaittuk, salpikaderon azpitik han kable ta kable, ta halako baten kixton kea, ta hatzeko batek que estan dando en la television algun incendio o que? Ta bitarten kaguen sos, telebixoa bate estrenabe a tomar vientos. Erre iñuan ta furgonetea bueno, buuu, guaiñ Ana enteatzén baldín bada,... Ordun guk beti esate genduan, vayamos donde vayamos caja de herramienta, si llebamos una caja de herramienta llegaremos y volveremos. Ez guaiñ bezela, gu ordun jute giñuztean Bartzelona o korri ittea, ni junda neok Aia monta buruaiño y con lo que habia. Sartu atzen beste hiru laun, batzuk alanbretan bestek zeán baiño buelta bat itte genian.

Ordun, hasi hitzeanen karrerak eta itten ze ibiltze hitzean Espaiñi mailan?

Pixkana-pixkanaka. Nik itte nian aurrena hemengoá, goikoa, zona norte ta geo campeonato de España, iza teittuk zortzi hamar karrera.

Hautza eozeiñek jun zaiek?

Hik in beharra daukek klasifikau. Denbora bat. Ordun izate giñuztean de asustar e, berrogehi laun hor geldik. Klasifika itte nitxoan, el veintipico, hor ibiltze nitxoan, baiño karo, jute giñuztean Estellan zan bat oso karrera inportantea



Bere lagunekin Ereñu 2015.



Markos (10 zenbakia) eta Julen semea atzetik (100 zenbakia)

huan ordun, San Esteban de Ormaz, Sorin, Burgosen San Isidro. Ta gero ia hasi nitxoan beraxeo. Neuken laun bat juten zala merkata saltzea, zea karrerata. Ordun motoa saltze genduan han ta nik rekanbion hogeien bat estanten gaiñen preapauta han netzako, ta jartze nitxoan han ta Sevilla, Huelva, Valencia,... hola ibiltze giñuztean. Guaiñ ikusteittuk ze auto-karabanakiñ ta juten dien da esateek, la ostia, igual-igual. Baiño hemengo karreratan beti sartze giñuztean aurreneko. Behintzet klasifikau. Jartzeie motoi holako aparato bat ta ordun bertan pasatze haizenen markatzeizkik denborak. Jute giñuztean korritzea canpeonato de España... gaur eun etzeok koloreik e. Igual hirurogei ta hamar, larogehi piloto kanpeonaton ta korritze zitean berrogehi bi de reserba. Jute hitzean telebixoa ta mekaguen la ostia,... a dar vuel-tas,... da hola.

Karrera bat nola izatea? Zenbat buelta? Zenbat irauten do edo,...?

Leno itte huan, berrogehi minitu, mas dos vueltas. Gero in ziean berrogehita hamar minutukok, hoik zien ia bi manga. Berrogehi moto jarrin han tope ta ataztea izateek, pulsaziok jartzen xaixkik,... Gero salida nulok, ta beize atzea, ta,... luza itteek baiño. In ziean berrize bi manga jarri ta guaiñ itteie 45 minutu ta bi buelta.

Kategori guztitan o kategorin arabera?

Huan canpeonato de España, guaiñ kategorik aldau in dizkie, guaiñ MX1, MX2 dittuk fuertenak, elite, dittuk motos de cuatro tiempo. Eta guk itten diau hamabost minutukok. Mangak ta bi buelta. Izateittuk hogehi minutu inguru. Egie esan nahikoa.

Zuek etzeate ibiltzen moto modernokin? Zuek ibiltzen zeate bestelako motokin, zuen kategorie dek,...

Gu klasikon. Gure kategorie zeok Pre 76, Pre 78, nik korritzen det Twinshock kategorin dos amortiguadores, ta hasta el año 83. Nere motoa dek 83koa ta amortiguadoretan da gastau daikek nahi deken diru guztie baiño bi, bi amortiguadore. Zarata zeukek nere gustoa eta me va esactamente. Gero dauzket beste moto zarragok. Frantzin porejemplo... Eske Frantzin dek ia es una kultura,... Del 65 al 75 dittuk joiak. Del 71-79 eta nik hortxe bea, replika GPDK Frantzin.

Zuen kategori hortan ordun gaztek, helduk eta zarrak, danak korritzen zue?

Moton edadea dek inportantea, pilotok adin guztietakok izatek dituk, baino gero klasifikazioa aparte egiten dek. Kanpeonato bat baldin bada, eta karrera ez puntuagarria, klasifikazioa gelditzen bezala izaten dek. Aurten Asturiasen karrera baten leheneneko geatu nitxoan ta

bigarrena eta hirugarrena 30 urte ingurukoak zien.

Karrera politenak Frantzikok izaten ittuk. Abuztunaurreneko iganden Toulusen, han juntatzen gaituk Europa guztiko pilotok. Ikusgarria izatek boxeseke esplanada ta hango festa. Igual juntatzen gaituk 200 lagun edade guztikok 18 urtetik 83 urte bitartekok. Aurten hirugarren geatu nitxoan, nere seme Julenek aurreneko karrera han korritu zian eta puesto onen geatu huan, naiz eta manga baten motoa apurtu, dena atten kulpaa, ja, ja, ja...

Leno esan dek 18 urtekiñ hasi hitzeala karrerak korritzen, gero 20 urtekin etenaldi bat eon zan soldaduska zala ta, gero berrize hasi ta noiz arte?

Ba ezkondu nitxoan 97n ta orduarte korritzen, ta gero ezkondu ta geau nitxoan moton ez ta,... nada, 0, ezta karrerak ikusi. Geau nitxoan hamar urte eo moto bat ikuttu gabe.. Enian faltan botatzen. Ta gero, ba gero hasi giñuztean Axintxo da, hok beti mendiko motoa eukidon ingurukoa, eta bueno, hokiñ atetzen hasi nitxoan da pixkanaka-pixkanaka eta jaietan da ia berrize hasi nitxoan pixkat gustoa hartzen da,... Baiño hamar urten, hamar o hamaika, etzekiat zenbat dian, enian,...

Nolokoa izaten dek entrenamendu bat?

Tenporada hasten denean, astebu-

rutan geazen gaituk inguruko zirkuitan, ta bestela hemen Zubingo minan, zirkuito koxkor bat zeukeau ta han juntatzen gaituk inguruko lagunek. Axintxo, Agarreko Julen ta nire semea. Julen urrengon Maidar eraman behar diat, bero bero eginda zebilek... ja, ja, ja... eta inportanteena gosaltzea, Santa-maña... Axintxo oso ondo zebilek, baino guain egurre Agarreko Julenek ematen ziuk. ¡ALUE!

Suposatzeet kirol garesti xamarra izango dala?

Bai, merkea ez dek. Zeatik biajek diela, materiala dala,... Nik zekeat suertea nere laune Leandrok zeukekela dendea. Ordun, motoa praktikamente etxen ez diat eukitzen. Karrera bukau ta beak eamaten dik eta beak jartze ziak ba, ondo, prezion e arreglatze gaittuk, itten ziak eskulana, gutxigon, piezak kobrau. Ta Frantzia ta itten dixkiaun biajek e erdibana itte dixkoau. Bakarrrik jutea dek, gastutan diferentzie dek.

Eta gero, ba hoi, nik motokin da behintzat suertea izan diat. Puskau nian guan dala bi urte, moto guztie txikitu nian, baiño txikitu e! Zea nun izan zan, Murchanten, karrera baten, aurrena nijola gaiñea ta rekta bat zeoan ta in zitzatzen hura ata ta bistoia dana. Ta harrezkeo ez diat aberi haundik izan ta guaiñ e ekarri nian beste 125 Yamaha bat ta gehio semek ibiltzeik baiño aurtan irabazi diat, setiembren 125kin. Ta prepau nixkian motok esplendamente Leandrok. Hortan zeukeat kixton txoilloa.

Honea ekarri dittuk trofeo batzuk ta diploma batzuk,... ta hainbeste urtetan majiña karrera irabazitakok izango zeate ba?

Bueno. Gazte denboran ez horrenbeste, baiño beti puntan ibiltze nitxoan. Ta ordun zuan guain baiño kompetentzie,...



Altzako zirkuitoa 2009.

Nei gehiena, gehiena gustatzen zaiakena dittuk saltok. Zekuak launek Santanderren da,... hola beti esaten diatenak, Markos nos encanta verte volar...

Zifra bat esateatik,... zenbat karrera irabazi?

Urten? Urten sei, zazpi... 2014ean Espaiñiako txapelketa eta Euskadiko irabazi nizkian, aurtan Espaiñiako txapelketan 3. geatu nitxok baino oso pozik. Datorren urten semea jarri martxan ta ni jubilatatu.

Zenbat urtekin hasi esan dek?

Ni hasi nitxoan dos mil ochon, hasi nitxoan mantxo-mantxo ta pixkana-pixkanaka jun neok hartzen, hartzen da guain nebillek errex da gozatzen. Dana bezela dek, ibili in behar! Bihar jungo neok igual 125kin semekin hor, zean ibiltze gaittuk gu, tiro-platoko esplanada hortan. Zirkuito txiki bat Agarreko biden in zieran da,...

Bukatzen juteko,... emateonez etxen baukezue beste bat etorkizunekin? Harrare sartu zaiok o sartu diok o,...

Bai, danetik pixkat. Nik etzoat asko animau nahi baiño,...

Zenbat urte zeuzkek guaiñ?

14. Ingoixkik hil hontan 31n. Urte zar eunen. Eta esate zoat, pelotan ibiltzen dek gustoa ta, aurtan gaiña oso ondo zebiltzek eta campeonato de Gipuzkoa semifinaleta sartutuk guaiñ ta Mattin da bik da,... Nik etzoat gehio aurrea eaman nahi, zeatio etzeok, lo unico que tienes de ahi, eunen baten, una hostia buena eta ezer ez gehiau, ze lenau, esan deten bezela guain dala 30 urte, hemen zeonen, sartu zienen ia kanpoko markak, diru pixkat atea ta,... Gaur eunen funtzionatzeik, tu tienes moto, como la formula 1, trae pasta, y te damos coche, pero ven con millones...

Ordun, Espaiñi maillan, hontatik bizitzeko,...

Zero, ez dau.

Noiz arte ikusten dek hire burue korritzen?

Nik, esateiat aurtan aizkenekoa, aurtan aizkenekoa, aurtan aizkenekoa,...

Jubilatuak martxan



Pasaian Gipuzkoako erretiratuen martxan.

Adinekoen nazioarteko eguna (urriak 1)

Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatuz, urriaren 1ean pentsioen murritzketen aurkako kontzentrazioa egin genuen herriko plazan. Arratsaldeko zazpitan elkartu ginen, eta jubilatuak ez ezik, herritar ugari ere parte hartu zuen.



Flashback-a pasaian (urriak 17)

Flashback egitasmoaren barruan, Gipuzkoako hainbat herritako adinekoak elkartu ginen urriaren 17an, larunbatean, Pasaian. Bertako kiroldegian genuen hitzordua, eta goizeko hamaiketatik arratsaldeko zazpiak aldera bitartean hainbat ekintza egin genituen, elkarrekin ondo pasatuz eta elkar ezagutuz.

Gipuzkoako erretiratuen martxa (urriak 24)

Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak urtero antolatzen du Erretiratuen Martxa. Aurtengoa Pasai San Juanen ospatu genuen. Ibilaldi neurtua egin genuen Gipuzkoa osoko bailaretatik etorritako erretiratuok, eta oraindik ere sasoi gaudela argi utzi genuen, beste behin.

Errioxara txangoa (urriak 28)

Oraingoan ere ezin urtea amaitu Errioxa aldera bisita egin gabe. Bizi Nahi elkartetik Lodos –Azagar– Lodos txangoa antolatu genuen urriaren 28rako, eta 55 lagunek eman genuen izena. Lodosan piper festa ikusi ondoren, Azagara bazkaltzera joateko bidean upategi bat bisitatu genuen. Egun paregabea egin zigun, eta guk ere ezin hobeto pasatu genuen.



Errioxara eginiko txangoko hainbat pasarte.



Tipi tapa

Neguan sartu gara baina gure Tipi Tapako kideek nagikeria gutxi azaldu dute, eta egitasmoarekin aurrera jarraitzeko asmoa dagoela adierazi nahi dizuegi idatzi honen bidez. Aurrerratu behar dugu baita ere, 2016. urtean egitasmo hau pasotxoak baino zerbait gehiago izango dela. Orain arte bezala asteartetan egiten jarraituko dugu, eta negu partean, iluntasuna eta eguraldi txarra medio, elkartzeko ordua 16:30era aurreratuko dugu. Gogoratu sasoi onean eta ez hain onean dagoen edozeinentzako neurria egindako ekintzak izango direla, errazak eta edonork egiteko modukoak; beraz, animatu!

Podologo zerbitzua (urtarrilak 13)

Hurrengo podologo zerbitzua urtarrilaren 13an izango da, eta izena eman nahi baduzu, Bizi Nahi elkarteko batzordeko kideekin jarri beharko zara harremanetan. Gogoratu bi hilean behin dugula zerbitzu hau eskura gure herrian.

Martxoan ohiko batzarra

Oraindik eguna zehazteke badaukagu ere, aurreratzen dizuegu martxoan kontuak azaldu eta 2016. urterako asmoen berri emateko OHIKO BATZARRA izango dugula. Eguna eta ordua batzordeak zehazten dituen jakinaziko dizkizuegu. ■

Herri bizitza

2015ean batzordetan eginiko lanen errepasoa eta aurrera begirako egitasmoak.



Egindakoak

- Dokumental eta pelikulen zikloarekin, herritarrak zenbait gairen inguruan kontzientziatzen saiatu gara.
- Uraren kontsumoa, euskara, berdintasuna, indarkeria ezberdinak jasandako biktimen testigantzak, alzheimerra...
- Tipi Tapa elkimena martxan jarri dugu. Arrakasta handia izan du ekimenak eta 2016. urterako ekintza gehiagorekin aberastea aurreikusten da, hala nola beroketa eta gimnasia ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak...
- Podologo zerbitzua ere ekarri da herrira. Jubilatutako kudeatzen du eta beraiei esker, bi hilean behin podologo zerbitzua dugu herrian bertan.
- Hezkuntza taldea sortzeko lehen urratsak eman dira. Irailean 0-12 hilabeteko haur masaje tailerra antolatu da.
- Denboraren bankua martxan jartzeko lehen urratsak ere eman dira. 2015ean ez dugu izan denbora nahikoa gai honi behar bezela heltzeko, baina 2016rako lehentasuneko gai modura jarri dugu.
- Desfibriladorea erosi da eta berau erabiltzeko ikastaroak egin dira, bai herritarrekin eta baita udal langileekin ere.
- Berdintasuna ardatz hartuta, martxoaren 8rako eta azaroaren 25erako ekitaldiak antolatu dira, herriko beste eragileekin elkarlanean.
- Laz bezala, jaietako larunbatean egin zen bokata jana antolatu da. Lortu zen dirua gizarte langileari eman zaio gizarte arloan kudeatzeko.
- Batzordetik Etxe Kaleratzeak Stop Goierriko plataformarekin harreman zuzena dugu, kasuren bat sortuz gero, laguntzeko prest gaudela jakin dezazuen. Gainera, 2014an, etxe kaleratzeen inguruko protokoloa ere idatzi eta adostu genuen.

Ongizatea

Egitekoak

- Denboraren bankua
- Tipi Tapa ekimena indartzea
- Pelikula-Dokumental zikloarekin jarraitzea
- Hainbat gaitan herritarrak kontzientziatzeko lanarekin jarraitzea
- Bakarrik bizi diren adinekoen argazkia egitea
- Berdintasun gaia lantzen jarraitzea herrian

Egindakoak

- Udala Goiener-eko bazkide egin da.
- Argiteria publikoa berriro da, LED teknologia oinarritutako kudeaketa inteligentea daukan sistema ezarri.
- Udal eraikin publikoetan energia aurrezteko proiektuak egiten ari gara. Mediki etxea eta Gaztelekua aztertzen hasi gara.
- Beko Kaleko proiektuaren oinarriak jartzen aritu gara. Proiektuaren garapenerako oso garrantzitsua den lur saila eskuratzen du Udalak.
- Etorkizuneko eskola berriaren inguruko azterketa egiten hasi gara, kokapen posibleak bilatuz eta Hezkuntza Sailarekin harremanak eginez.
- Ur gutxien kontsumitzen duten herritarrari hobariak aplikatzeko azterketak burutzen hasteko asmoa dago.
- Informatikari bat kontratatu da lau hilabetez Udaleko informatika baliabideen kudeaketa laguntzeko.
- Landa Eremurako diru-laguntzak lortu dira eta zenbait lan egiteko asmoa dago (basoak berreskuratu, terrenoak, Murumendi...).
- Plazaren eta bidegorriaren arteko bereizketa nola egin aztertzen gabilta. Lehenengo fasean bankuen konfigurazioa aldatzea erabaki da.
- Zubingo zabortegearekin zer egin eztabaida zabaldu dugu. Jaurilaritzi bertako egoera konpondu dezan eskatuko zaio.
- Eguneroko martxan azaldu diren zenbait gairi irtenbidea eman zaie.
- Hondakinen kudeaketa hainbat aldaketa inplementatu dira kostua murrizteko.

Lurralde antolamendua

Egitekoak

- Hondakinen kudeaketa hobetu. 2015ean egin diren aldaketek jarraipena egin eta hobetzen saiatu.
- Ur kontsumoaren gaineko azterketak egin.
- Frontoiko irisgarritasun plana egin.
- Eskola berriaren proiektua garatu.

Egindakoak

- HEZKUNTZA: eskola, haurreskola eta udala etengabeko harremanetan daude. Haurren Herria ekimena, poliki, baina aurrera doa, eta herrian zer-nolako hezkuntza eredia nahiko gurekin eztabaida dute mahai gainean.
- EUSKARA: hizkuntza erabilera sustatzeko zenbait ekimen egin dira:
 - Mintzalagun taldeak sortu
 - Arnasgune saioak egin
 - Euskara bultzatuko duen talde txiki bat ere martxan jarri da.
- HERRIKO JAIK: urtetik urtera parte-hartze maila handitzen doa, baina asko dago egiteko. Festa batzordearen antolamendua indartu behar da, eta bileretako parte-hartzea ere bai.
- AURREKONTUAK: diru-laguntzen partidari, aurrekontu partehartzailak izan daitezten saiakera egin da herriko eragileekin.
- UDA KANPAINA: aurten ere guraso elkarteak, udalaren laguntzarekin, uda kanpaina antolatu du eskola amaitu ondorenerako.
- GAZTELEKUA: Gaztelekuaren funtzionamendua, antolaketaren inguruan hausnartu da. Nerabeen aisialdirako ekintzak antolatzeaz gain, herrira begirakoak ere antolatu dituzte. Horrela, gainerako eragileekin harremanetan jarri dira, elkarlanean, herritartasun aktiboa eta parte-hartzea bultzatuz. Aurrera begira eman beharreko pausuak ere finkatu dituzte.

Herri bizitza

Egitekoak

- HEZKUNTZA: zer-nolako hezkuntza eredia nahi dugun eztabaidatu.
- KIROL ELKARTEA: kirol elkarteak berpiztu.
- BIZI NAHI ELKARTEA: jubilatuen elkartera bazkide gehiago erakarri, mugimendua sortu.



28. Ibilbidea

Lazkao - Ataun (San Martin)

Ondorengo ibilbidea oso erraza da. Lazkaoko plaza-tik irten eta Ataungo norabidea hartuko dugu. Bidean Agauntza ibaiari jarraituz Ataungo San Martin auzora iritsiko gara.■




Iraupena: Ordu bete



01 San Juan ermita

02 Lazkaoko presa

03 Otadizelai Baserria



04 Agauntza erreka gaineko zubia

05 Agauntza erreka ondotik


06 Atsedenekua



07 Sastegi baserria

08 Ajarrestaberri

09 Berrarain



San Martin auzoa 10



Azalpenak adi entzuten.

Bertako basoak auzolanean berreskuratzen



2015eko azaroaren 29an auzolana egin genuen Itsasondon. Auzolan honetan Murumendi inguruan bertako espezieen zuhaitzak landatu genituen: lizarrak, pagoak, haritzak, gereziandoak eta astigarrak. Horrez gain, saguzarrentzako kaxak ere jarri genituen.

2009an hasi zen Udala bertako basoa berreskuratzen, eta ordutik hona, 5,1 hektareatan baso autoktonoa berreskuratze lanak egin ditu. Murumendi inguru aukeratu du Udalak helburu horretarako. Izan ere, biodibertsitate aberatsa garatzeko potentzial handia du inguru honek. Gaur egun, ordea, landaketa artifizialek estaltzen dute hein handi batean, lur gehienak jabe pribatuen esku egonik.

Basoak berreskuratze prozesua luzea da. Zein tokitan lan egin erabaki ondoren, lur-sail horiek eskuratu behar dira. Udalak lur-sail batzuk erosi egin ditu; beste kasu batzuetan, aldiz, kudeatzeko akordioak egin dira jabearen eta Udalaren artean. Ekimen honi esker, lur horiek naturaren kontserbazioaren ikuspegitik kudeatzen hasi dira lehen aldiz, etekin ekonomikoaren ikuspegia alde batera utziaz.

Zein landare landatu behar den erabakitzeke, toki bakoitzean berez garatu beharko litzatekeen landaredia aztertzen da, hau da, habitat potentziala aztertzen da. Horretarako, faktore biotikoak (egun hazten den landaredia, esaterako) zein abioikoak (orientazioa, malda, itsasoarekiko gertutasuna, kota, e.a.) hartzen dira kontuan. Ondoren, landareak lortu eta landatzen hasten dira. Lur-sail horietan landaketa artifizialak

hazten badira, pinu edota alertze landaketak, adibidez, horiek erretiratu behar dira lehenik. Horretarako, inguruari ahalik eta kalte gutxien eragiten dioten teknikak erabiltzea da gomendagarriena, aireko kable bidezkoa edota entresaka teknika, kasu.

Landatzen diren ale berriak bertakoak izatea bilatzen da, jatorria ahalik eta gertukoena izatea, alegia. Landatzen diren zuhaitz eta zuhaixkak gazteak izan ohi dira, apurka-apurka lur berrian egonkortu eta indartsu hazi daitezten. Landaketaren ondorengo lehen urteetan sasi garbiketak egiten dira, sasi horiek landare berrien hazkuntza oztopatu ez dezaten. Zuhaitz berriek nahikoa altuera hartzean, ordea, lur-sail horien eboluzio naturala bermatzea da garrantzikoena. Ez da ahaztu behar helburu nagusia baso naturala berreskuratzea dela, non zuhaitz eta zuhaixka mota ezberdinak dauden, adin ezberdinetakoak (hildako zuhaitzak barne) eta era nahasian antolatuak. Egitura konplexu honi esker bizi ahal izango dira bertan animalia, landare eta onddo mota ezberdin eta ugariak.

Azaroko auzolanaren bitartez, balio horiek herritarren artean zabaldu nahi izan ziren, bide batez herritarrak mendiko lanetara gerturatu eta horiek baloratzen ikas dezaten. Ezin dugu ahaztu, gainera, antzinatik datorkigun ohitura honek herritarren arteko harremanei dakarkien onura: lan giro atseginean gure arteko harremanak sendotzen ditugu askotan, gero eta ahaztuago daukagun talde sentimendua indartuz. Auzolan honetan, ume zein heldu, 20 bat lagunek parte hartu genuen. MILA ESKER GUZTIOI ETA HURRENGORA ARTE! ■



Saguzarrentzako kaxak ipintzen.



Lana egin ondoren, hamaiketakoa.



Guraso eta haur taldea mendian.



Ijittu eguneko une bat.

Gaztain jana

Azaroak 7an ospatu genuen “Gaztain Eguna”, udazkeneko egun paregabea izan genuen.

Lehenbizi mendi irteera egin genuen, adin ezberdinak dituzten haurren gurasoak elkartuko ginen eskolako atarian.

Haur handienak segituan egin zuten buelta, korrika batean iritsi ziren, txikiagoak berriz, lurrera begira aritu ziren, altxor ezberdinak aurkituz, gaztainak, intxaurreak eta lau hanketako “xomorrito” gixajoren bat!

Baina azkenean hantxe elkartu ginen denak, iturriaren aurrean taldeko argazki bat ateratzeko.

Batzuk berriz, korrika batean jeitsi ziren egosi behar zuten txorizo eta txokolate bokata prestatzera.

Menditik jeisterako bokata prest!

Gaztainak ere bidean! Hortxe ibili ziren arratsaldeko lauetatik prestakuntzan! aspalditik hortan ibili izan diren “profesionalak” eta gazteago batzuk, lanbide horrek eskatzen dituen “trukoak” ikasten.

Mahaiak plazan ipini eta bertan txorizo bokatak, gaztainak eta umore onaz disfrutatuko genuen.

Ea hurrengo urtean ere, aurten bezala, aiton-amonen, helduen, gazteen eta haurren argazkia ateratzea dugun mahai luze baten inguruan, noski beti ere dedikazioz egindako gaztain batzuen inguruan. ■

Ijittu eguna

Larunbatean, hilak 30ean, Guraso Elkarteak deituta, Ijittu eguna ospatu genuen Itsasondon. Eguraldia, ezin hobea izan zen eta herrian zehar zarata eginez buelta egiteko aukera izan genuen.

Horren aurretik, jubilatuen elkartean taldeka pintoak egin genituen. Baita izenak jarri ere! Bikain ibili ziren herriko ijitto txikiak lan eta lan jator-jator. Sukaldariren bat aterako da agian hemendik... Iru-dimena faltarik ez dago gure txikien artean. Pintxoei izenak jartzeko ere ez zituzten zalantzarik izan: (baten bat jatea beldurra ematen zuen arren... eta ez prezio itxuragatik, izenagatik baizik: “ez jan ez baduzu hil nahi..”).

Bukatzeke, jubilatuen elkartean gurasoek emandako janariarekin afari-merienda ederra egin genuen.

Giro ederrean ibili ginen han bildu ginenok.

Hurrenarte ondo bizi! ■

Segurtasuna interneten (2. atala)

*Nola zaindu gure ordenagailua
Internetetik hel daitezkeen arriskuetatik.*



HTTPS web orriak

Denok dakigu zer diren http hizkiak. Sigla horiekin hasten dira Interneteko web orrialde guztiak, nahiz eta salbuespen batzuk egon. Hypertext transer protocol (hipertestuzko transferentzia protokoloa) esan nahi du.

Baina, badago beste protokolo bat, gaur egun gehien erabiltzen dena. Eta protokolo hori da HTTPS (hipertestu fidagarriaren transferentzia protokoloa). Horrek esan nahi du, gu ikusten ari garen web orriak segurtasuna bermatzen duen eskaera minimo batzuk betetzen dituela. Ondorioz, ez dituzte lapurtuko gure ordenagailua eta gure datu pribatuak. Baina, horrek ez du esan nahi birusek sartzeko aukerarik izango ez dutenik. Antibirusa go-goan eduki beharra dago beti, nahiz eta HTTPS web orri batean egon.

Segurtasun web orri hauek normalean erosketak elektronikoa egiteko web orriak izaten dira, edota gure korreo pertsonala ikusteko orriak, adibidez, hotmail, paypal, ebay...

Ingeniaritza soziala

Zer da ingeniari soziala? Ingeniaritza soziala erabiltzaileak manipulatu izateko informazioa eskuratzean datza. Ingeniari sozial batek Internet erabiltzen du biktima engainatzeko, eta ondorioz, isilpeko informazioa lortzeko (pasahitzak...) edo legez kanpoko zerbait egin dezan lortzeko.

Hau da, zuetako zenbatek ez duzue jaso korreoren bat esanez norbaitek zuen pasahitza aldatu duela, edota zozketa bat irabazi duzuela, hotmail/facebook/yahoo eta abarretako korreoak, beraien segurtasun protokoloengatik zuen pasahitza eta korreoa sartzeko? Bada, horixe da ingeniari soziala. Norbaitek bidaltzen dizu korreo bat hotmail/ebay/yahoo... pasaraziz zuei harrapatzeko, eta esaten dizuna sinistaraziz; horrela, lapurrari zure pasahitza eta korreoko datuak pasatzen dizkiozu (zuk nor den jakin gabe).

Kontuz ingeniari sozialekin! Korreo ezezagunen bat iristen bazaizu, ezabatu edo galdetu norbaiti.

Erosketa digitalak

Erosketa digitaleko web orrietan, ondo ikusi beharra dago Verified Visa edo MasterCard secureCode ikonoak azaltzen diren beraien web orrietan. Eta bestela, beste firmaren bat, baina beti kandadua duen marrazkiaren ondoan.

Horrek esan nahi du web orria fidagarria dela, eta erosketak egiteko arriskurik ez dagoela. Gainera, zerbait erostean, beti bidaliko digu gure bankuko web gunera Internetetik ordainketa egin ahal izateko.

Paypal sistema edo PaySelf sistemaren bitartez ere ordain ditzaiegu gure erosketak; eta, kasu hauetan ere, kandadu ikonoa izaten duten konfiantzazko bitartekariak egiten dute lana. Zeren saltzaileak ez du dirua jasoko guk produktua jaso arte, eta egun batzuk pasatu ondoren inongo erreklamazioarik sortzen ez bada eroslearen partetik.

Printzipioz, hori dena da kontuan eduki beharrekoa; bai aurreneko atalean esandako guztia eta bai azkeneko honetan esandakoa ere. Kontua da beldurrik ez izatea, eta edozer zalantza edo arazo edukita, galdetzea edo Interneten begiratzeta. ■



Zer da aurretiazko borondateen dokumentua?

Nire bizitzaren azkenetan, neuk adierazi ezin izatekotan, jaso nahi ditudan tratamendu medikuak eta zainketa moduak biltzen dituen idatzia da.

Neuk egin al dezaket?

Bai, adinez nagusia naizelako, eta, gainera, askatasunez egingo dudalako.

Zer adierazi dezaket?

- Nire balioak adierazi ditzazket. Ondorioz, ni zaintzen nauten pertsonak jakingo dute nirekin nola jokatzea nahi dudana, ezintasun fisiko nahiz psikiko larria izanez gero.
- Behin betiko ezintasuna gertatzekotan, zainketa sanitarioen gaineko jarraibide zehatzak eman ditzaket. Era berean, tratamendu agresiboak eta/edo neurriz kanpokoak errefusa ditzaket.
- Ordezkaririk bat aukera dezaket, helburua hauxe delarik: neuk adierazi ezin izanez gero, berak mediku taldeari laguntzea erabakiak hartzen, beti ere nire balioak jakinda.

Zer egin behar dut baliagarria izateko?

Lehenik eta behin, nire balioekin bat datorren dokumentu bat bete behar dut. Eredua aldeztatik prestatua izan daiteke, edo, bestela, neuk idatzi dezaket nire dokumentua eskura dudana informazioa kontsultatu ondoren, edo zentro sanitarioetan emango didaten gida aztertu ondoren.

Ondoren, aukera hauetako pertsona baten edo batzuen (egindako aukeraren arabera) aurrean izenpetu behar dut:

- Aurretiazko Borondateen Erregistroko ardura-duna.
- Hiru lekuko.
- Notario bat.

Ordezkaririk hautatzea:

Nire ordezkaririk pertsona garrantzitsua da. Izan ere, lehenago aurrekusi ez diren kontuak ebatz ditzake. Honelakoak izan behar du: nire konfiantzakoa, nire balioen jakituna eta, nik ezin badut, bizitzaren azkeneko hainbat egoeratan erabakitzeko gaitasuna duena.

Nire ordezkaririk izatea onartu behar du. Izan ere, bizitzaren azkenetan agian eskaintzen dizkidaten zainketen inguruan erabakitzeko erantzukizuna hartzen baitu, beti ere nire balioak kontuan hartuta.

Gomendioak:

Aurretiazko borondateen dokumentua egiteko, profesional sanitarioen taldeek, etika batzordeek edo erabiltzaileen elkarteek gauzatutako ereduren bat erabil dezakezu.

Komentatu itzazu egindako dokumentuaren alderdi funtsezkoenak familia hurbilenarekin eta hautatutako ordezkariekin.

Kontsulta ezazu zure familia medikuarekin. Berak aholkatuko zaitu gaixotasunaren bilakaeraz eta erabaki bat edo beste hartzearen ondorioez.

Zure herriko Gizarte Zerbitzuetara ere jo dezakezu. ■

Euskararen eguna

Itsasondon ere, Euskal Herriko haienbat txokotan bezala, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen Abenduaren 3-an. Hasteko, Urkipe eskolako haurrak musikaz alaiturik kalejiran jeitsi ziren herriko plazara. Ondoren "Euskaraz bizi" esaldia osatuz, mosaiko erraldoia egin zuten eta arratsaldea euskal abestiak abestuz amaitu zuten.

Iluntzean berriz, mintzalagun taldekoak Kaxintane tabernan zuten zita mintza praktika eginez, kurtsoari hasiera emateko. Bertan, datorren kurtsorako ildoak finkatu zituzten.

Lerro hauek arobetxa nahi genituzke gainera, interesa duten herriko euskaldun berriei talde hauetan parte har dezaten. Interesa duzuenak Euskara taldekoekin jar zaitezke harremanetan. (Ekaitz Arruti, Marijo Jauregi, Aitziber Irazusta, Unai Aldasoro) ■



Mintzalagun taldekoak mintza praktika egiten.

Putinen guardasola

Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak ikuskizun berria estreinatu zuten 2015eko urrian Donostian, eta egun batzuk geroago (azaroaren 21ean) eskaini zuten gure herriko eskolako aterpean.

Rayk eta Nik (Inazio Tolosak eta Ramon Agirrek) lehendakariaren enkargu bat jaso dute: Euskal Herriko ereserki berria grabatzea. Erronkari aurre egiteko, munduan zehar biran ibili dira, ereserkia egiteko formula aurkitu arte.

Musika, dantza eta umorea tartekatuz, bi artistek ordubeteko ikuskizun aparta eskaini zuten, bertan elkartutako guztion gozamenerako. ■



Ikuskizuneko une bat.



Antzerkira bertaratutakoak.

Jakoba Errekondo

A benduaren 1ean, Jakoba Errekondok, Itsasondon bere liburu "Bizi baratzea" aurkeztu zuen.

Gerturatutako herritarrentzat, aukera paregabea izan zen baratza inguruko jakin miña asetzeko. ■



Kantu afaria

A zaroaren 27an Arbelaitz elkarteak izan zen kantu afaria, Kuxkuxtu musika taldearen doinu eta musikaz alaituta. Giroa berotzen hasteko Kaxintanen hasi zuten emanaldia, eta elkarterako bidean, Nautikon ere egin zuten geldiunea. Beti bezala, Ikerrek prestaturiko afari goxoarekin, gustura egon ginen denok! ■



Kuxkuxtuko kideak.

Ongizatea

A zaroaren 10ean herritarrekin eta azaroaren 26an udal langileekin desfibriladore ikastaroa izan genuen.

Abenduaren 9an ongizate batzordeak antolatuta autodefentsa ikastaroa izan genuen. Hamabost emakumek parte-hartu genuen eta zenbait trikimailu ikasi genituen.

Eta, gure aldetik, urtea bukatzeko, pelikula zikloa abenduaren 2an, 9an eta 16an izan da. Pelikulen izenburuak: "El patio de mi cárcel", "El señor Ibrahim y las flores del Corán" eta "Nebraska".

Partaidetza onarekin baita ere. ■



Autodefentsa ikastaroa.



Desfibriladorea ikastaroa.

Errifaren zozketa

Azaro eta abenduan zehar, herritar askoren borondate onari esker, saski zoragarria osatzea lortu genuen. Jubilatutako elkarteetan ikusgai egon ondoren, Urtarrilaren 8an zozketa egin eta Maria Teresa Huarteren etxera joan zen Lurdesen dendan saldutako 0067 zenbaki saritua, zozketa irabazleak, Joseba Usabiaga eta Mikel Sanchez, hurrengo fa- sara pasatuko da. ■



EHko Mus Txapelketa

Urtarrilak 16an, EHko mus txapelketaren Itsas-sondoko kanporaketa ospatu zen. Bederatzi bikote parte hartu zuten. Bikote irabazleak, Jo- seba Usabiaga eta Mikel Sanchez, hurrengo fa- sara pasatuko da. ■



Txurro ikastaroa

Azaroaren 13an txurro ikastaroa izan zen Jubilatutako El- karteetan bertaratu ziren ume eta gurasoentzat. Rosik erakutsi zien oreka nola egin, eta Edurneren laguntzarekin frijitu eta txokolate goxoarekin jateko aukera izan zuten. Merienda gozo-gozoa! ■



Talo festa

Aurreko egunean kantu afaria eta hurrengoan, azaro-aren 28an, Talo Festa! Aste bukaera borobila Itsa-sondon azaroko azkena. Urtero bezala, arratsalde hotza izan bazen ere, giro ona lortu zen talo goxo-goxoak janda. Aurrez, umeek txokolate bero-beroa ere hartu zuten.

Bertan izan ziren erakusgai Gusen egur- lanak, eta baita Gotzonenak ere; eta eskolako umeek egindako hainbat eskulan eta margo lanak ere bai. Artistak bertan ditugula, urrutira joan gabe! ■



(natura)

Sendabelarrak

Badirudi gaur egungo gizartean sendabelarreko interesa indartuz doala, baina hauen erabilera antzinakoa da. Betidanik erabili izan ditugu landareak; elikatzeke, gaixotasunak sendatzeko eta baita gozatzeko ere. Mendeetan zehar ahoz transmititu izan da ezagutza hau baina azken urteotan liburu asko ditugu eskura.

Aldizkari honek eskeintzen digun aukera honekin, pixkanaka sendabelarrak identifikatu eta erabiltzen hastera gonbidatu nahi zaituztet.

Ezertan hasi aurretik ezinbestekoa da hartu behar dugun sendabelar horren landarea bera ezagutzea, eta baita dagokion dosia ere. Ondo ezagutzen ditugun belarrak soilik erabili behar dira. Belar bakoitzaren eragina eta sor ditzakeen ondorioak jakin. Sendabelar horri interesatzen zaizkigun osagai aktiboak erauzteko landarearen atal desberdinak erabiliko ditugu, sustraiak, loreak, hostoak, azala... Atalaren arabera modu desberdinetan egingo ditugu prestaketak.

Jakin nahi al duzu zertaz arituko garen ?

- Noiz eta non egiten den bilketa, landareen atalak...
- Landareak nola lehortu, nola gorde eta noiz arte dugun erabiltzeko aukera.
- Sendabelarren propietateak eta erabilpena.
- Olioak, ukenduak, tinturak, jarabeak, xaboiak eta alantzeak hirulatoak nola egin.

Zuen artean jakinmina pizten bada ikastaro praktikoak antolatzeke aukera ere izango genuke. ■



Iñaki Aizpuru



(errezeta)

Sepia eta haragi ekologikoz egindako haragibolak (albondiga)

4 pertsonentzako osagaiak

Haragi ekologiko kilo bat
120gr ogi-mami
Hiru baratzuri hehetu
Hiru arrautza
Gatza eta piperbeltza
Perrexila
300gr sepia
250ml ardo txuri
200gr tomate frijitu
Bi azenario handi
Piper berdea bat
Erromero adarra bat
Hiru tipula ertain

Prestaketa

Tipula, azenarioa eta piper berdea txikitu, eta frijitzen jarriko ditugu. Bitartean, haragibolak egingo ditugu haragi ekologikoa, arrautzak, baratzuri txikituta, ogi-mamia, perrexila, gatza eta piperbeltza nahastuz. Haragibolen tamaina, kontsumitzailerako bakoitzaren gustora utziko dugu eta gomendagarria izaten da aurrez ogi-mamiak esnetan bustitzen edukitzea, horrela, albondigak samurragoak aterako bait dira. Haragibolak egin ondoren labean sartuko ditugu, oliorik hartu ez dezaten. Tipula, azenario eta piperraren frijituari, sepia zatitan moztuta gehituko diogu eta piskat gehio frijitzen utziko dugu. Segidan ardo txuria eta tomatea gehituko dizkiogu eta azkenik ura edo salda pixkat, jarraian albondigak gehitzeko. Erromero adarra botako diogu eta 20 minutuz irakiten utziko dugu. Guzti hau txibiekien ere egin daiteke. ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Langileen erdiak euskaldunak DIREN BITARTEAN, beste erdiak, erdaldunak	Langileen erdiak EUSKALDUNAK DIRA, ETA beste erdiak, erdaldunak
Konortea BERRESKURATU zuen.	BERE ONERA etorri zen.
Alderdi DESBERDINAK bat etorri ziren.	ALDERDI GUZTIAK/ALDERDIAK bat etorri ziren.

Euskaraz bai, umorea ere bai:

Hau gizona!

Bi emakume tabernan, elkarrekin solasean...

- Eta zuk, gizon sentibera, ederra, aldarre onekoa, adeitsua, haurrak gustuko dituen, sukaldetan ondo moldatzen dena... aurkituko bazenu, zer egingo zenuke?
- Dokumentala!

Albistea

Googlek euskarazko ahots>testu bihurgailua jarri du sarean. GoogleDocs-ek euskaraz diktatzen zaiona testu bihurtzen du! Proba egin nahi baduzu lotura honetan dituzu jarraitu beharreko instrukzioak: Googlek euskarazko ahots > testu bihurgailua jarri du sarean.

Liburutegia



Atertu arte itxoin

Bi ipuin-liburu eta haur eta gazte-literaturako hainbat istorio idatzi eta gero, helduentzako lehenengo eleberria plazaratu du Katixa Agirrek (Gasteiz, 1981). Euskal Herrian zehar Road Movie bat egiteak gauza zaila dirudi, baina horixe egingo dute nobelako protagonistek, Ulia neska gazteztarrak eta haren mutil-lagun Gustavo gaztelarrak. Ilbildean zehar, hainbat leku, lagun eta gertakiarrekin egingo dute topo, eta horrekin batera bikotearen gorabeherak jakingo ditugu. Aldi berean, nobelak baditu beste hari pare bat behintzat: 1976ko martxoko Gasteizko langile-protestetan sortu eta Espainiako kartzelatan jarraituko duen maitasun-istorio bat, Benjamin Britten musikari ingelesaren inguruko kontuak...



El mal camino

Frantziar hegoaldeko landa bide batean, ezustean gizon bat agertu da. Gertakizun hau Bert Amandale idazle famatuaren eta bere lagun musikariaren amesgaizto bihurtuko da. Mikel Santiago idazle euskaldunak gauaren iluntasunean murgilduko gaitu bigarren nobela beltz honekin.



Mar de nubes

Kanariar irletan, Erika Bergman neska gaztearen gorpua aurkitu dute. Diego Quintana komisarioak Sara Moberg irlandar bizi den suizarraren eta Kristian Wede polizia izandakoaren laguntza izango du ikerketan. Zalantza asko daude, ordea, argitzeko: Zer gertatu zen gau hartan? Zergatik agertu da gorpua horrela? Zer esan nahi die hiltzaileak? Hiru protagonistak Erika Bergman-en bizitzan murgilduko dira hiltzailea harrapatzeko.



Aurten ere fruta-arbolak banatuko dira herritarren artean

Itsasondoko ingurumena zaindu eta aberasteko helburuarekin herritarren artean fruta-arbola eta zuhaixkak banatuko dira.

Gaur egun gertatzen ari den fruta-arbola barietate autoktonoen galerarekin arduratuta, bertako jatorria duten fruta-arbolak lehenetsiko dira. Horrez gain, landare-hesi bezala baliatu daitezkeen beste hainbat landare ere eskainiko dira. Beraz, Itsasondoko herritarrei lur-sail edota lorategietan bertako fruta-arbola eta zuhaixkak landatzera animatu nahi zaituztegu.

Landare hauek dohain eskuratu nahi dituenak, otsailaren 11 baino lehenago Udaletxera gerturatu eta bere eskaera egin beharko du. Eskaera egiteko nahikoa izango da izen-abizenak eman eta landare horiek landatuko diren lur-sailak adieraztea. Landareak, eskaera epearen amaieratik 2-3 lanegunetara jaso ahal izango dira

Hauek dira eskainiko diren fruta-arbola eta zuhaixkak:

- Fruta-arbolak (San Juan zuri sagarrondoa, San Pedro sagarrondoa, San Inazio sagarrondoa, Amibirjin-Pelestriña sagarrondoa, Errezil sagarrondoa, Urreztai sagarrondoa, San Juan udareondoa, Mizpira, Klaudia berdea aranondoa, Intxaurrondoa eta Gaztaina)
- Bestelako zuhaitz/zuhaixkak (Erramua, Gorostia, Elorri zuria, Zuhandorra, Makatza eta Sagarmina)

Aldez aurretik jakinarazten da entregatzen diren landareetan aldaketa txikiak egin daitezkeela tokian tokiko existentzien arabera.



Oharrak



Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkarte 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko

943 007635

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela

943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((31. zk)) Otsaila/Apirila 2016

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Amaia Salegi
Axier Arbilla
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatua elkarte
Danel Etxeberria
Ekaitz Arruti
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haizea Arruti
Ibon Aginaga (UEMA)
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturririk Guraso Elkarte
Maddalen Sarasola
Maite Lasa
Maddi Alberdi
Mertxe Orte
Mikel Mendizabal
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572

Gipuzkoa
ARTEA

**GOGORAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
APIRILAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

OTSAILA

2, 9, 16, 23: Tipi-Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko ekintzak

12: Sukalde tailerra

13: Makrobiotika tailerra

25: "Euskal Herria zatitu zuten garaiko istorioa" DVD emanaldi-hitzaldia

MARTXOA

1, 8, 15, 22, 29: Tipi-Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko ekintzak

8: Emakumearen nazioarteko eguna | Afaria

12: Makrobiotika tailerra

21-23: Aste Santuetako kanpaina | Haur eta nerabeentzat ekintzak

22: Odol ematea

23: Liburu eguna

XX: Sagardotegira irteera Itsasondo, Arama eta Altzagako herritarrak

APIRILA

2: Haur-liburu eguna

5, 12, 19, 26: Tipi Tapa, ongizate fisikoa naiz mentala hobetzeko ekintzak

15: Alex Txikon hitzaldia

16: Makrobiotika tailerra

17: Mendi irteera herrikoia

26: Gaixotasun egoeran, osasuna berreskuratzea, nork bere baliabideekin - Kulturgunean (18:30tan)

27: Festa batzordea osatzeko lehen bilera

30: Urkiko Santikutz jaiak

